

SEGURTASUN-OHARRA

COVID-19aren aurkako une zail eta desafiatzaile hauetan, Ermuko Udalak aho-sudurreko babes-maskarak eman nahi dizkie herritarrei, koronabirusa transmititzeko arriskua murrizteko.

Honen bitartez, Ermuko Udalak maskara horiek egin dituzten boluntarioen lan desinteresatu eta solidarioa eskertu nahi du.

Ermuko Udalak azpimarratu nahi du maskara hauek ez direla medikoki estandarizatutako produktuak, norbera babesteko eta besteak babesteko tresna baizik; beraz, Ermuko Udalak ezin du bere gain hartu gure maskarak modu desegokian erabiltzearen ondorioen erantzukizuna.

Maskara mota honek koronabirusa transmititzeko arriskua murriztu dezake, hitz egitean, eztul egitean edo doministiku egitean tanten banaketa murrizten baitu.

Osasun Ministerioaren gomendioen arabera: **"2 urtetik beherako umeei, arnasa hartzeko zailtasunak dituzten pertsoneri, ezinduei edo beste arrazoren batengatik maskara laguntzarik gabe kendu ezin dutenei ez zaie oihalezko estalkirik jarri behar "** (www.mscbs.gob.es).

Jarraian, aho-sudur maskara erabiltzeko jarraibideak emango dizkizugu:

- Maskara ondo jarrita erabili behar da. Erabiltzen denean hezetasuna pilatzen hasten bada, birusaren hesia azkarrago apurtzen da.
- Ez dago frogarik maskara erabiltzeak pertsona osasuntsuentzako infekzio-arriskua murrizten duenik: hala ere, birusaren hedapena geldiarazi dezake, pertsona askok ez baitakite birusaren eramaileak diren.
- **Eskuak garbitzeak eta segurtasun distantzia 2 metrokoa mantentzeak** infekzioa saihesteko edo are gehiago zabaltzeko **neurri garrantzitsuenak** izaten jarraitzen dute.
- Maskarak erregulartasunez garbitu behar dira, 20-30 minuturen ondoren erabiltzen eta arnasten direnean hezetasuna pilatzen hasten baitira.
- Maskara berriz ere erabili nahi baduzu erabili ondoren, gutxienez 60º-tan garbitu behar duzu edo lapiko batean irakin.
- Maskara garbitu eta lehortu ondoren baino ezin da berrerabili.
- Maskara erabiltzen ez bada, behar bezala bota behar da.